

GERNIKA-LUMO



ERDI AROKO ARTE ONDAREA GERNIKA LUMON

Unitate didaktikoen bilduma (8)

Egilea:

Gernikazarra Historia Taldea.

Argitaratzailea:

Gernika-Lumoko Udaleko Euskara Saila.

Babesleak:

Gernika-Lumoko Udaleko Euskara Saila

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila (HPS)

Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila (Euskara Zuzendaritza)

Maketa eta inprimaketa:

Gertu inprimategia (Oñati)

Urtea:

2014ko edizioa

Gernika-Lumoko arte ondarea Erdi Aroan

AURKIBIDEA:

1.-Sarrera

2.-Gotikoa

- **Gotikoa Euskal Herrian**
- **Gernikako Andra Mari eliza: eraikina eta altzariak**

3.-Lumoko San Pedro Eliza

4.-Errenteriako Gurutzea

5.-Baselizak

- **Santa Ana**
- **Santa Luzia**
- **San Martin**
- **Antiguako Andra Mari**

6.-Ariketak


1.– Sarrera

Gernika-Lumo Erdi aroko arte ondarea ez da ugaria, Santa Ana eta Santa Luziako basilizak eta Andra Mari parrokia, azken hau hiriaren ardatza. Horregatik, unitate honetan Erdi Aroan geratu beharrean, Errenazimendu garaian ere murgilduko gara nolabait.

2.-Gotikoa

Arte gotikoa erromanikoaren eraldaketa azkarra-
ren ondorioz sortzen da. Erromanikotik gotikorako ebo-
luzioaren arrazoiak aurkitzeko, garai hartako Europa as-
tindu zuen eraldaketa ekonomiko eta sozialera jo behar
da. Erregeek bere autoritatea jaun feudalen gainetik ge-
hitu nahian, bidegurutze eta portuetan zona frankoak sor-
tzera jo zuten, menpekotasunik gabeko tokiak sortzeko
moduan.

Hiribilduen sortzeak, (Bizkaian bi mende baino
gutxiagotan 21 hiribildu), aro berri baten hasiera marka-
tzen du. Lur laua utzi eta hiribilduetara jotzen zuten per-
tsonek segurtasunagatik egiten zutela esan behar; aldi
berean jauntxo eta erregeek baliabideak areagotzeko eta
industria eta merkataritza sustatzeko bultzatzen zituzten.



Gotikoaren bilakaera Behe Erdi Aroko burgesiaren agerpenarekin, merkatalgoaren
loraldiarekin eta manufaktura-industriaren gorakadarekin lotzen da.

2.1. Gotikoa Euskal Herrian

Euskal Herriko arte gotikoak frantsesaren eragin nabarmena erakusten du, Nafarroako erregearen harremanak Gorte frantsesarekin hasi zirenean eragin hori areagotu zelarik. Etsenplurik ugarienak eta bikainenak Nafarroan bertan ditugu, baina gotikoa Euskal Herri osoan hedatu zen.

Bizkaian eta Gipuzkoan ez dugu Nafarroako, Arabako edo Lapurdiko lekukoak adinako eraikuntza monumentalik aurkituko. Baina hauetan ere bada gotikorik, neurri apalagokoa, herritar-rragoa, nahi bada, baina hau ere erakargarritasunez betea eta bertako harginen lana erakusten duena. Dimentsio ertaineko eraikuntzak dira ia beti eta altuera berdineko nabez osatuak, *saloi-eliza* motakoak, hain zuzen.

2.2. Gotikoa Euskal Herrian

Bizkaiko monumentu gotiko ederrenak XV.mendekoak dira. Aipamen berezia merezi dute Bilboko Katedralak eta bere klaustroak eta Lekeitioko Andra Mari Elizak. Beste maila batetan aurkitzen dira Balmasedako San Seberino, Erandioko Andra Mari, Orduñakoa, Bermeoko Santa Eufemia eta gure Gernikako Andra Mari.




Lekeitioko Andra Mari



Bilboko katedrala

2.3.Gernikako Andra Mari Eleiza

Aldapa oso maldatsuan dago kokatuta Andra Maria eliza; Foruen Hiribilduko hirigunearen eta Lumoko elizatearen jurisdikzioaren arteko muga izan zen aldapa hori. 1418an hasi ziren eraikitzen. Eliza honen ezaugarriarik berezietakoa bere estilo nahastea da: portadan gotikoa, barrualdean errenazentista. Historia gorabeheratsua du, eta horregatik luzatu ziren obrak 1715era arte. Elizaren parte guztiak, beraz, ez datoz guztiz bat, garai eta joera artistiko ezberdinetatik hartu duelako eraikinak.



Oinplanoa


Eraikina

Kanpotik, Gernikako Andra Mari bolumen trinko eta adiezin bezala ikusten da, harri landuko eta hargin-laneko puska itzel gisa. Teilatu zabalak gunea handia ezkutatzen du, bost tarteko hiru nabetan antolatua. Nabeok abside poligonalekin errematatuta daude eta gurutzegangaz estalita du gotiko eran. Ganga horiek harresietan eta joniar ordenako zortzi zutabe klasikotan eusten dira.



Gernikako Andra Mari.Fatxada

Fatxada noblea Iparraldera begira dago eta alde horretako kontrahormak arku sendoekin loturik daude. Goian, 1775eko hiru gorputzeko kanpai-horma handiak, barroko garaikoak. Portadak estilo gotikoari jarraitzen dio: bederatzi arkibolta meheez osatutako arku zorrotz eta txaranbeldua, janben egitura klasikoan sustatua; arku behekatuz osatutako ate bi-koitzaren gainean tinpano hutsa, Andra Maria eta bere haurraren irudia duen mainelak eutsita eta atea bitan banatuz. Arkiboltak santuen irudi tailatuez apainduta daude. Erdialdean, bere garaian irudiren bat gorde zuen dosela mantentzen da. Mainelaren gainean eraikinaren biografiarako testu interesgarri hau: *Myll et cccc et XLIX Sanch/o deenparu*. Aipu horren arabera, 1449an obrako arduraduna Santxo Enparan izan zela dakigu.



Andra Mari. Portada

Lehen arkiboltan landare motiboak, animaliak eta giza irudiak tartekaturik ikus daitezke. Gainerako arkiboltek ez dute dekoraziorik, azkenekoak izan ezik. Filigrana itxurazko drosel-txoek enmarkaturik eta arkuaren norabideari jarraituz, bata bestearen atzean, apezpikuen eta sainduen irudiak daude. Irudi horiekin batera, Santiago, San Andres eta Santa Katalina. Azken Epaiketan arimak pisatzen dituen aingeru baten irudia ere ikus daiteke, eta tetramorfoa arkiboltaren ardatzan. Arkibolta, biluzik dauden bi irudi eta tximinoek eraturiko errepresentazio arraro batek dekoratutako bi mentsuletan dago kokaturik. Multzoa, landaretza ugariekin dekoraturiko isurki batek errematatzen du.



Santiago

Baketo finek eraturiko ate-zangoek San Pedro eta San Pablo sainduen irudiak dauzkate. Azken eskultura hauen kalitatea portadaren onena dela esan daiteke xehetasun eta doitasun gehiago ikusten delako lantzeko orduan.




San Pedro




Gurutze ganga

Tenpluaren barrualdean honakook nabarmentzen dira: gela estaliaren eta zutabeen handitasun-sentsazioa, hiru nabeak ukitzen dituen oinetako korua eta goiera handiko buruaren hiru inguruneotako harresietako pasabide hustua. Eleiza errenazimendukoa dela esan daiteke, altuera berdina duten hiru nabeen egitura, ginbel seudonikoak dituzten pilare monozilindrikoak eta gurutzeganga konplexua ikusirik.

Baina, aldi berean, gotiko zenbait elementu gordetzen ditu, triforioa (kapera nagusia), portadak eta leihateak, besteak beste. Erdiko absidea poligonal da; bertan triforio jarraitu bat ikusten da.



Absidea



Korua.Arkua


Korua eta azken gangen iraulketa 1660. urtekoak, Antonio Ortiz Colina harginak egindakoa. Kanpai-horma Manuel Capelastegik egin zuen 1776an. Badu Walcker markako organo zoragarria, 1889an egin. Eliz barruko imajina ikusgarriak José Capuz, Moisés Huerta, Francisco Asorey eta Mateo Inurriak egin zituzten

Altzariak

Egun elizak ez du altzari garrantzitsurik. Rococo estiloko zenbait irudi daude, haren azken erretauletako batetik berreskuratuak. Lehenengo kaperan apaindu gabeko barroko erretaula dago, Joan Azkunaga Foruko maisuaren lan interesgarria. Sakristian Pasioko eszenadun mihise barrokoen bilduma ikus daiteke, Ildefonso Bustrinek XVIII. mendearen erdialdean egindako lana. Artista hori, Bizkaiko tradizio piktorikoa bizirik eta maila duinean mantentzen zuen artista bakanetakoa zen.

3.-Lumoko San Pedro Eliza

Lumoko San Pedro eliza zaharraren lehen aipamen dokumentala 1051koa da. Baina eliza zaharra berreraikia eta handitua izan zen XVI. mendean, gaur egunera arte iritsi den tenplu itxurarekin, hain zuzen ere. Lan garrantzitsuenak XVII. mendean burutu ziren, bertako patroiak ziren Mezetatarren leinukoek emandako dirutzari esker, zenbait berriztapen egiteko eta kanpai pare bat erosteko.



Lumoko San Pedro

Elizaren ezaugarri arkitektoniko eta artistikoak.



Portada

Kanpotik ikusita, erakarri egiten gaitu dorre airosoak. Fatxada nagusian elizpe zabal bat aurkitzen dugu, tenpluaren atzeko alderaino. Portada, arku errenazentista handi baten itxurarekin, zutabe joniar biren artean. Barruan, nabe bakarrean, korua da aipagarria, XVII. mendekoa, Gernikako Andra Mariaren elizan aurki dezakegunaren modukoa. Arku zentral handi batez osatuta dago eta alboetan arku-erdi bik eskailerei lekua ematen diete korurako. Bost aldareak, hiru aurrealdean eta bi alboetan, barroko estiloan eginak dira eta egitura ederrez.

Aldare nagusia San Pedroren irudiak burutzen du. Sagrarioa zurezkoa da eta bere aurrealdeko be-erliebeak Kristo deabrua menperatzen erakusten du.



Aldare nagusia

4.– Errenteriako Gurutzea

Gurutzea sinbolo eta kultuko objektu bezala erabiltzea zabaltzen joan ahala, Erdi Arotik aurrera propietateen mugarriak jartzerakoan, edo hirien sarreretan eta bide-gurutzetan gurutzeak jartzeko ohitura zabaldu zen. Halaber, harrizko zein metalezko gurutze monumentalak eraiki ziren tokiko gertakizun oroigarriren bat gogoratzeko, edo Misio Santu baten oroigarri bezala besterik gabe.



Gurutzearen jatorria. Legenda.

Antzinako esaunda batek dioenez, Errenteriako gurutzea Arteaga eta Muxikako dorretxeetakoak borrokatu ziren tokian eraiki zen, Bizkaiko leinuen arteko guden garaian, Erdi Aroan. Izatez bada 1445ean izandako gudu baten notizia: “(...) *pelearon los de Butrón y los de Arteaga cerca de la rentería de Guernica. En la cual pelea murieron seis hombres y una mujer de Arteaga, y murieron dos hombres de Butrón. Y fueron heridos sesenta hombres de Arteaga*”. Aurrerago ere, 1468an, izan zen inguru horretan beste borrokaren bat, zehaztasun dokumental gutxiago gelditu bada ere.

Legenda honen inguruan zehaztasun batzuk egin behar dira. Interpretazioa balitz izandako borrokatik urte askotara eraiki zela gurutzea toki hartan, ez genuke oztoporik jarriko. Baina ezin da pentsatu gurutzea gertakizunaren garaikoa denik, bere egiturak adierazten duelako gutxienez 100 urte geroagoko estilo baten egina izan zela.

Gurutzea 1835eko maiatzaren 2an birrindua izan zen, Gernika, Lumo eta Errenteriako kaleetan zehar liberalen eta karlisten artean izandako borroka bortitz batean. Egun hartako arratsaldean indar liberalak Errenterian sartu ziren eta karlistei aurre egin zioten. Zenbait ordu iraun zuen borroka hark; batzuen eta besteen arteko kanoikaden ondorioz, Errenteriako gurutzea hondatuta gelditu zen eta baita ere Santa Maria Madalenaren basiliza. Ajangizko udalbatzaren artxiboa, auzuneko baserri gehienak eta Mertzedeko eliza sutan jarri zituzten.

Asko itxaron behar izan zen gurutzea konponduta ikusteko, 1893an Ajangizko udalbatzak, haren egoera ikusita (*“caída al lado de la taberna de Rentería”*), konpontzea erabaki zuen arte.

Gurutzearen kokapena



Gurutzea 1920an

Gurutze mota hau gertakizun historikoren bat izandako tokietan eraikitzen zen eta Erreterriakoa, ikusi dugunez, Erdi Aroan gertatutako borroka baten oroimenez eraiki zela dio tradizioak.

Gainera Santiago bidean maiz eraikitzen ziren. Gure kasuan gogoratu beharra dago bidearen adar bat Marmizetik Erreterriaraino iristen zela. Hortik jaraitzeko, bi aukera ziren: itsasadarra zeharkatu Ibinarriagan (toponimo hau 1366ko Gernikako hiri-gutunean agertzen da dagoeneko), edo Erreteriatik Gernikara pasatu 1450 urtearen inguruan eraiki zen harrizko zubitik.

Baina, batez ere bide gurutzetan eraikitzen ziren. Erreterriakoa bada honen adibide ere: hemen aurkitzen ziren alde batetik Ajangizko portutik zetorren bidea (gaurko Mertzede kalea) Arratzu eta Lekeitiorantz joateko, bestetik Gernika eta Lumorantz zihoana eta, azkenik, Marmiz eta Mendatarantz abiatzen zena.

Tipologia

Lau harmaila zirkularren gainean altxatzen da. Hauen gainean plinto errektangeluarra, irudi zirkular batzuekin dekoratua, eta honen gainean fuste zilindriko leun bat. Kapitela boluta batez de-



Gurutzatua. M.Estebanez

koratuta dago lau aldeetako bakoitzean. Gurutzearen besoak moldura batzuetan amaitzen dira. Aurrealdean Jesus gurutzatuaren irudia darama eta atzealdean Amabirjinarena Haurrarekin.

Gurutzatua

Irudia ez da kalitate handikoa, baina nahiko proportzionatua da eta ondo kontserbatuta dago. Gorputzak okerdura apur bat egiten du eskumarantz, burua arantzazko koroaz inguratuta eta zerbait makurtuta alde berera, begiak itxita, sufri-mendu isila transmitituz. Gerrian zapi bat darama lotuta. Es-kuak gurutzera iltzez josiak, hatzamarrak zerbait zarraturik.

Hankak zuzen eta bi oinak iltze batez josiak.

Amabirjina

Hemen ere irudiak kalitaterik ez badu ere, proportzioak behintzat zaintzen ditu. Zutik, mantu batez estalita eta aurpegi-era lasaiarekin agertzen zaigu. Haurra darama ezker besoan eta beste besoarekin eusten du; hankak ez dira ageri, noizbait apurtu eta hala gelditu zelako irudia. Mantuaren tolesturak nahiko ondo landuak daude.

Haurra

Bere Amaren besoan eserita agertzen da, jantzita ala biluzik dagoen jakiterik ez dagoela, irudiaren kalitateak ez duelako bereizten uzten. Jesusek burua Amari begira dauka, baina espresioari buruz beste ezer ezin da igarri, bere aurpegia nahiko deseginda dagoelako. Esku bat Amaren aurpegira altxatzen da, bestea bularrerantz luzatzen den bitartean.



Amabirgina. M. Estebanez

5.- Baselizak

Ermitek, arkitektura edo arte alorrean izan dezaketen baloreaz gain, merezi dute gure arreta eta ikerketa sakona. Garrantzitsuak izan dira landa giroko herrien bizitza sozialean eta beraien erlijiotasunaren islada nagusia ditugu. Gure udalerrikoak hauexek dira: Santa Ana, Santa Luzia, Amillagako San Martin, Antiguako Andra Mari, Madalenekoa eta San Bartolome (azken hauek biak Errenterian zeuden eta urteak dira desagertu zirela).

5.1.Santa Ana

Ermita hau Urdaibai dorretxeko Per Ibañez jauntxoak eraiki zuen 1461ean. Beraz, Urdaibai inguruko Ahaide Nagusi baten fundazio partikularra dugu ermita hau. Urdaibaiko dorretxea Foruko mugen barruan eta Lumoko parrokiaren lurretan egon arren, ermita betidanik izan da Gernikako hiriaren jurisdikziopean.



Santa Ana

Hain toki estrategikoan eraiki zutenez, izena eman zion hirian sartzeko ate bati. Sarritan irakurtzen da sasoiko dokumentuetan halakoa: “en la salida de la casa torre llamada del Portal, hacia Santa Ana...”. Beraz, hiriaren irteeran kokaturik zegoen, Gernikatik Bermeorako Erret Bidean, Kosnoagaren hegian, Dondiz baserri gunearen ondoan, ofita muino batean, ibarrera begira.

Deskribapena

Laukizuzenezko oinplanokoa da, 16,40m. x 8,50 m. Hormak manposteriaz eginak, harlanduzko hegala eta lau isuraldeko teilatua (egun hondatuta dago). Aurrealdean mendebalderantza begira, arku zorrotzeko atea du hareharrizko dobelekin, ohikoa XV. mendearen erdiko eraikinetan. Gainean arkudun lehioa du, funtzio bikoitzarekin: argia eman koroari eta espadainaren funtzioa egin bere baoan dagoen kanpaiarentzat. Hegoalderantza, aspilera bat du. Zorua harlausaz egina dago. Antzinean, zurezko koroa izan zuen eta haga landuak ohikoak ziren izar borobilekin.

Ermitan zeuden irudiak galdu egin ziren, baina badago eskulturen grabatu bat, non ikus daitezkeen hiru eskultura multzo. Erdian Santa Ana, Ama Birjina eta Umea agertzen dira; eskumal-dean berriro gai berbera aurreko hiru irudiekin; eta hirugarren irudia baliteke izatea San Joakin umetan Ama Birjinarekin.

5.2.Santa Luzia

Santa Luzia ermita, Lumoko San Pedro eleizari atxikitua, Montefuerteko kondeak ziren Allende Salazartarren patronatoaren parte zen. Zallo auzoan dago, Lurgorri izeneko inguruan, artadi txiki baten ondoan, Mikienerako bidean.

Eraiki zenetik bat eginda egon da bere ondoko baserriarekin eta beraz partikularra zen, baina auzokideek betidanik berarekiko izan duten atxikimenduagatik, auzo ermitatzat har dezakegu. Gainera ermitaren bueltako lurrak auzo lurrak dira.




Santa Luzia

Deskribapena

Ermitak eta baserriak, biek, eraikin bakarra osotzen dute. Ermitak nahiko neurri handiak ditu ermita xumea izateko. Laukizuzena da, 13,20m. x 9,72m., eta nabe bakarrekoa. Hormak kontrahorma bakoak, manposteriazkoa da eta hegalak hareharrizko harlanduzkoak. Sabaia zurezkoa da eta hiru isurialdeko teilatuak estali egiten du aurrealdea, atari txikia eratuz eraikinaren hegoaldean. Espadaina harlanduz eginda dago eta bao dat du kanpaiarentzat.

Arkitektura atalik interesgarrienak hegoaldean daude: atea arku zorrozduna da, dobela handiz osotua (margoztuta daudenez, hurbildu beharra dago bere benetako neurriaz ohartzeko). Elementu apaingarri nagusia lehio bat da, arku zorrozdunarekin eta oso landua. Azkenik, beste lehio bat arku eskarzanoarekin, aurreko lehioa eta aldarearen aldearen artean.



Arku zorrodunazko

Ekialdean, aldarearen atzealdeko horman bi lehio dinteldunak ditugu, baina arkitektonikoki interes bakoak. Zolua baldosaz estalita dago eta presbiterioa litekeenean oholtza txikia du.

Ermitaren ikonografia irudi hauek osotzen dute: Erdian Santa Luziaren zurezko irudia. Altarearen goialdean Pietatearen irudia eta alboetan San Lorenzo eta Santa Marina.

5.3.Amillagako San Martin

San Martin basiliza Lumoko Amillagako auzoan kokatuta dago, izen bereko baserriaren eta Gauriaga (“*Geurixe*”) baserriaren ondoan. Ez dugu zehazterik noizkoa den basiliza hau, baina aspalditik egon da alboko baserrien ardurapean eta beraiek izan dituzte bertako giltzak.

Antzinean eleiza eta ermita gehienek beraienak ziren lurrak, baratzak eta basoak izaten zituzten, eta ermita honek ere izan zituen urteetan bereak ziren mendiak eta basoak. Seguruenik ondasun txikiak eta eskasak balio ekonomiko aldetik, baina bereak.

Gernika-Lumoko elizen (Gernikako Andra Mari eta Lumoko San Pedro) jabegoa zen, baina inguruko auzotarrek ateratzen zioten etekina errentak ordaindiz.

Deskribapena

Zaharberritze lanak burutu ondoren (altuera pixka bat gehiago eman dioten arren), mantendu egin ditu bere ezaugarri nagusiak.



San Martin zaharberritua



Erdiko Arkodun Atea

Egitura arkitektonikoa aztertuz, hauexek dira ermitaren ezaugarriak. Bere oinplanoa laukizuzena da, areto bakarrekoa. 11,70m luzeran eta 8,25m. zabaleran. Hormak harri eta buztin nahastukoak dira eta hegalak harlanduzkoak. Teilatua teilaz eta zurez estalita dago lau isurialdeekin. Apaingarri, eta detaile moduan, aipatzekoak dira hegoaldera begira dauden puntu erdiko arkudun atea, bere ondoko ur benedikaturako pilatxoa, harlanduzko aspilera bat eta kanpaia (kanpai zaharra galdu egin zen bere zurezko egiturarekin).

Zaharberritze lanak egin aurretik, zoluan terrakotazko baldosak eta ageriko lur zatiak tartekatzen ziren. Lehen, baziren aldare bi, nagusia egurrezkoa eta beste bat albo batean harrizkoa. Aldare nagusian eskultura eder bi zeuden, bat San Martinena eta bestea Santa Eufemiarena. Bigarren santa honen irudia dela-eta inguruko batzuk Santa Eufemia ere deitzen zioten basilizari. Aldare berean bazen San Antonioren koadro bat ere.

5.4. Antiguako Andra Mari

Ez dugu ziurtaturik ermita honen sorrera data. 1051n, Iñigo Lopez de Harok eta bere emazteak Armentiaiko gotzainari egin zioten dohaintza baten, Gernikako monasterio bat aipatzen da. Bere kokapenagatik, Gernikazarrako hariztian eta “antigua” izenarekin aipatua agertzen denez, babiliteke berau izatea, baina ezin dugu datu hau baieztatu.


Dena den, eraikina benetan antzinakoa da. 1410ean zaharberritze lanak egin behar izan zizkioten. Litekeena da, aurreko basiliza zaharra zurezkoa izatea eta ia seguru ondorengoak baino txikiagoa. Zaharberritze lanok Gonzalo Moro Korregidoreak burutu zituen. Guztiz berria egin zuen



“Besamanos”en xehetasuna

ermita: harrizkoa, gangaduna, aldarearekin eta elizkizunetarako beharrezkoak ziren kaliza, apaingarri eta bitxiak hornitua. Gainera zenbait lursail eta errenta eman zizkion tenpluari. Egungo Batzar-Etxean dagoen “Besamanos” izeneko koadroan daukagun ermitaren antzekoa izan zitekeen.

Ermita eta ondoko Arbolaren ingurua (herrietako ordezkariak batzarrak egiteko eremua) txiki geratzen zirela ikusterakoan, eraikin berria egiteko erabakia hartu zen. 1826an hartu zen erabaki hori, 1827an hasi ziren lanak eta 1831n bukatu. Egungo eraikina estilo neoklasikoaren ereduari jarraituz egin zen, eta harrezkero ez du izan aldaketarik bere kanpoko egituran.



Antiguako Andra Mari eta Gernikako Arbola

Erretaula

Ez dugu jakiterik hasiera batean erretaularik izan zuen, baina badakigu 1790ean Jose Joakin de Loizagari agindu ziotela berri bat egitea. Eraikin neoklasikoa egiterakoan Juan Bautista Belaunzaranez estilo bereko erretaula egin zuen. 1907an Serafin Basterrak eta Vicente Larreak beste erretaula berri bat egin zioten, Batzar Nagusiak berreskuratu zirenean kendu egin zena. Beraz, aretoak funtzio erlijiosoa galdu egin zuen.

6.- ARIKETAK:

1.-Bilatu hiztegia

- Absidea
- Kontrahorma
- Gurutze Ganga
- Erdi puntuko arkua
- Arku Zorrotza
- Triforia
- Arbotanteak

2.-Taldea lana:

- Gernika-Lumoko oinplanoan, unitate honetan ikusitako eraikuntzak koka itzazue eta ibilbide bat prestatu.
- Ibilbidean atera argazkiak
- Ibilbidean ateratako argazkiekin eta ikasleek bilatutako materialekin, aurkezpena burutu gelan azaltzeko mural baten bidez edo PPTen (Power Point) bitartez

ARGITARATUTAKO UNITATE DIDAKTIKO GUZTIAK

- 1.– GERNIKA-LUMO: KOMUNIKABIDEAK ERDI AROAN**
- 2.– HERRI SINESMENAK ETA OHITURAK. EMAKUMEA HERRI TRADIZIOAN**
- 3.– GERNIKA-LUMOKO EZAUGARRI GEOGRAFIKOAK, HIDROGRAFIA ETA OROGRAFIA**
- 4.– GERNIKAKO HIRIA**
- 5.– ERDI AROKO GIZARTE EGITURA GERNIKA-LUMON**
- 6.– ANTOLAKETA POLITIKOA ETA ADMNISTRATIBOA GERNIKA-LUMON**
- 7.– ERDI AROKO EKONOMIA GERNIKA-LUMON**
- 8.– ERDI AROKO ARTE ONDAREA GERNIKA-LUMON**

ESKURAGARRI HEMEN:

www.gernika-lumo-euskaraz.com

EGILEA



ARGITARATZAILEA ETA BABESLEA

gernika-lumoko
euskara zerbitzua



LAGUNTZAILEAK

